Osakidetza

3.14. GOIKO DIGESTIO APARATUKO HEMORRAGIAREN INTZIDENTZIA, KLINIKA ETA TRATAMENDUA LAPAROSKOPIA BIDEZKO BYPASS GASTRIKOAN

Leire Agirre Etxabe; Patricia Sendino Cañizares; Patricia Mifsut Porcel; Yanina Kataryniuk Di Constanzo; Maria Arana De La Torre; Iratxe Rodeño Esteban; Gaizka Errazti Olartekoetxea; Francisco Lor Ballabriga; Rafael Macho Quevedo Muñoz; Alberto Colina Alonso

GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA – HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES /Kirurgia Orokorra

SARRERA

Gurutzetako Ospitalean 2004tik 2011ra egin diren laparoskopia bidezko bypass gastrikoen konplikazioak aztertu ondoren, goiko digestio aparatuko hemorragian oinarritu gara, Helicobacter pyloriren eragina aztertzeko.

HELBURUAK

Goiko digestio aparatuko hemorragiaren intzidentzia, klinika eta tratamenduaz gain, Helicobacter pylorik duen garrantzia aztertu da

METODOAK

- Azken zazpi urteetako atzera begirako analisia: 2004tik 2011ra egin diren laparoskopia bidezko bypass gastrikoen konplikazioen analisia burutu da, goiko digestio aparatuko hemorragia aztertzeko. Guztira 93 bypass egin dira.
- Goiko digestio aparatuko hemorragiaren intzidentzia, kausa, klinika eta tratamenduaren analisia eginda.
- Helicobacter Pyloriren eragina, ureasa proban oinarrituta gastroskopia teknika bidez, kirurgia aurretik eta konplikazioak agertzean.

EMAITZAK

93 bypass → (Goiko digestio aparatuko hemorragia) intzidentzia: 3

KLINIKA	PAZIENTE KOPURUA (GUZTIRA 3)
Abdomeneko mina	3
Melenak	2
Hematemesia	1

DIAGNOSTIKORAKO PROBAK: gastroskopia + ureasa proba

GASTROSKOPIA+UREASA PROBA (3 KASUETAN)		
	POSITIBOA	NEGATIBOA
KIRURGIA AURRETIK	0	3
KIRURGIA ONDOREN (HEMORRAGIA AGERTZEAN)	*2 : urdaileko ultzera hemorragiaren kausa*	1

TRATAMENDUA → **KONTSERBADOREA:**
- IBP (-ak) 3 kasuetan
- eskleroterapia kasu 1ean
- H.pyloriren aurkako tratamendu erradikadorea ureasa positiboa izan den bi kasuetan

ONDORIOAK

- Goiko digestio aparatuko hemorragia oso konplikazio arraroa da, kasuen %3k soilik agertzen da. Honetaz gain, berantiarra da, lehen hiru hilabeteetan agertzen da eta.
- Diagnostiko (gastroskopia) eta tratamendurako teknika egokiak ditugu.
- Kasu honetan, kirurgia aurreko ureasa probak ez duela eraginik ikusi da.